

## **ARKAITZEN SENIDE ETA LAGUNEK EUSKAL HERRIARI**

Joan den asteazkenean jaso genuen Arkaitzen heriotzaren berri, gure bihotzek berarenarekin batera “krak” egin zuten. Geroztik, gauza asko esan eta idatzi dira eta Arkaitz maite genuenok badugu zenbait argipen emateaz gainera, adierazteko beharra.

Mediku txostenek, momentuz, diotenaren arabera, bapateko heriotza naturala izan da Arkaitzena. Azken unean, ia konturatu gabe, sufrimendu keinurik gabe hil dela onar genezake agian, baina ez bapateko heriotza izan denik, 13 urte luze hauetan erahil baitute krudelkeria neurtu eta sistematizatu baten bitartez. Arkaitzen espetxealdia ezagututa aldiz, nola onartu bere heriotza naturala dela?

Duela 13 urte ta erdi Arkaitz atxilotu eta torturatu egin zuten. Handik 3 urtera, epaiketan, fiskalak berak frogatu zuten ez zela aitortu arren, kondenatu egin zuten Andoni eta Txominekin batera, leporatzen zizkioten ekintzekin inongo proportziorik ez zuen kondena luze eta neurrigabeko batera. Askatasuna, Arkaitzek beste, inork gutxi maite badezake ere, gu baino hobeto eta azkarrago egokitu zen egoera berrira. Orduan, hasi ginen ulertzen urrutizaren eta dispersioaren benetako esanahia: Valdemoro, Ocaña, Herrera de la Mancha, Algeciras, Puerto... Gero eta urrutirago beti. Urte bakoitzean 100.000 km inguru egin ditugu astean 40 minutuz ikusi ahal izateko. Ezagutu dugu espetxe aldaketa bakoitzean, hainbat egunetan, non daukaten ere ez jakiteak sortzen duen ezinegona. Ezin dugu imajinatu, hala ere, berak, nola bizi izan duen, gurasoak bera bisitatzera joan eta errepidean istripu larri bat izan dutela jakitea. Ezin dugu irudikatu, sentitu duen amorrua, mina eta ezina gartzeleroek, jipoitu ondoren, eskuburdinekin, biluzik, egun oso bat ohera lotuta utzi dutenean. Arkaitzekin ikasi dugu, espetxe barruan ere, badirela espetxe gehiago, bere gartzelaldiaren zati handi bat isolatuta egin baitu, inongo kideren babesik eta laguntasunik gabe. Ezagutu dugu zer den, bera bisitatzeko 1000 kilometro egin eta edozein aitzakiarekin bisita ukatu eta elkar ikusi gabe itzultzea. Eta gogorra, jasangaitza egiten zaigu hori guztia eta gehiago, berak bakar bakarrik irentsi duela jakitea. Izan ere, jipoia edo beste edozer izanda ere, bisitan, gure aurrean, beti agertzen zitzaigun indartsu, beti aterarazten zigun irribarrea. Horrelakoxea zen Arkaitz, gogorra baina xumea. Ez gintuen larritu nahi, ez zuen gure bihotza mindu nahi.

Guk badakigu horrek denak hil duela Arkaitz; Arkaitz ez da joan, kendu egin digute. Gartzela politika hiltzaile baten ondorio zuzena izan da gertatu dena, ez “edozeini gerta dakioken zerbait”. Kasualitatea baino kausalitatea izan da. Zer gertatuko zaio ba lore bati, lurra, ura eta argia kentzen badizkiote?

Horrelakoetan, hitzak sobera omen daude, baina guri, hitzak falta zaizkigu, egun mingarri hauetan sentitu dugun babes eta maitasuna eskertzeko. Gertukoengandik hasi eta ezagutzen ez genuen jendearengandik ere bai, itzelezko berotasuna jaso dugu. Gure samina leuntzen lagundu diguzue. Egun hauetan, Arkaitzek hainbeste maite zuten herriak, bera ikaragarri maite zuela sentitu dugu. Mina, amorrua eta pena sentitu dugu baina baita harrotasuna ere, harro gaude Arkaitzekin eta baita Euskal Herriarekin ere. Arkaitz, Euskal Herriarena ere bada. Eskerrikasko guztioi, bihotzez, bisitetan eta bidaietan ezagutu eta lagundu diguzuen guztioi, egunerokoan laguntza eskaini diguzuen guztioi, hor egon nahi eta ezin izan duzuenoi, egoera hau iraultzeko zuten ekarpena egin duzuen guztioi...lepoan hartu ta segi aurrera!!

Bukatu aurretik, egun hauetan hedatu den informazio bat gezurtatu beharrean aurkitzen gara. Esan izan denaren kontra, Arkaitzen bikotekidea ez dago haurdun.

Azkenik, besarkadarik sentituena bidali nahi diegu Arkaitzek espetxean utzi dituen lagun eta kide guztiei. Badakigu zuek ere une latzak bizitzen ari zaretela eta jakizue zuekin gaudela.

Eskerrikasko.